

GAURKO GAZTERIAREN DIBERTIMENDUAK IRUDI BIZIEN METODOAZ

Jokin Apalategi

Filosofi eta Psikologi Fakultateko Irakaslea

Gazteriaren gaia, ikerketa soziologikoei dagokienean, ikertuenetariko bat da egungo hego Euskal Herrian. Baina, lan horiek komunzki gazteriaz lantzen dizkiguten irudiak estatistikazko perfilak osatzera mugatzen dira. Estatistikazko irudiak berriz bere balio adierazgarri guztiarekin izaki abstraktu eta orokorrak diseinatzen ailegatzen dira. Baina, bizitza duen edozein izaki, bere eraikuntzaz konkretu eta partikular da. Gazteriaz irudi zehatza gorik lor al genezake?

Guk geure aldetik horretarako irudi biziaren metodoa erabiltzen dugu. Zertan datza? Elkarriketarako inkesta egituratu bat prestatzen da irudi bizi bezala aldagai adierazgarriekiko izakiak hautatzen direlarik. Agertu nahi den fenomenoaren dimentsioak edo aberastasunak izaki eta aldagai horien kopurua handiago ala tipiago izatea aginduko du. Aldi berean berri-jasotzaileari eta berri-emaileari beren kondizioaz eta pertsonaz datu objektibo batzuek eskatzen dizkiegu.

Guk geuk, gaurkoz hemen, gazteriaren dibertimentuez bilduriko irudi bizi guztiak agertzeko dugun toki-eskasia dela eta, hego Euskal Herriko lau probintzietan lortutako lau irudi bizi transkribatuko ditugu.

Hale ere, irudi biziaren metodoa ikerketa oso baten barrenean atal osagaitzat daukagu. Ikerketa orokor batek irudi estatistikoa eta irudi bizi gurutzatu beharko lituzke.

Sarrera

Gazteriaren gaia, soziologoei dagokienean, ikertuenetariko bat da egungo Euskal Herrian. Azken urteetan, gazteria horrek gizarteko hainbat errealitatearen aitzinean duen iharduera, behin eta berriz aztertuz, hots, bilakaera baten aldi ezberdinetan ikasiaz, egindako lanak ugari samar izan dira. Baina, guzti horiek, komunzki gazteriaz ematen dizkiguten irudiak, "estatistikara" bihurtzen dira, edo eta estatistikazko perfilak osatzera bideratzen dira. Jakin dezagun, ordea, estatistikazko produktu hori bere baliotasun adierazle guztiarekin, izaki abstraktu eta orokorrek diseinatzen eta ez beste edozertara ailegatzen dela. Honela bada, estatistikazko izakia, bizitza duen ororen larrutik kanpoko gertatzen da, eta azken funtsean, konkretu eta partikular ororen ukazioa da.

Guk, gai hau jorratzean hautatu dugun metodoa, aldiz, irudi bizen bidez, perfil abstraktu eta orokorretarako bidea irekitzera zuzendurik dago. Hasteko bada, metodologia alorreko diferentzia bat dago. Eta irakurleak ikusiko duenez ez da huskeria. Halere, daitekeena da xinglekeria eta aldrebeskeria iruditzea askori, zeren ohartun ala ez-ohartun, ohiturik bait gaude estatistikazko irudietara. Guzti honen jakinean bada, hau estraño bat egiten dugu.

Irudi bizen erabilera behar bezala burutzeko kontu handienarekin hautatu behar dira perfil alorrera jaso nahi diren izaki konkretu eta partikular horiek. Horretarako, nahitezko da, irudi bizi bezala hautatzen diren izakiak aldagai adierazgarri osoturik egotea. Agertu nahi den fenomenoaren dimentsioak edo aberastasunak irudi bizen kopurua handiago ala tipiago izatea aginduko du.

Gaur, guk hemen gazteriaren dibertimenduez agertuko duguna, lan handiago baten zati bat besterik ez da. Irudi bizi adierazgarrienetarik laburpen bat egitera behartuta aurkitzean, arrisku guztiarekin, bakar batzu plazaratzen ditugu. Irakurleak bada kontutan eduki dezala datu hau. Irudi bizi bat proiektatzean, aldian aldiko darabiltzagun aldagaiak irudi-emailearen fitxa egitean adieraziko dira. Horregatik, irudi bizi bakoitzaren amaierari bere emaile den aktorearen datuek jarraituko diote.

Halere, irudi bizen metodoa ikerketa oso baten barrenean osagaitzat daukagu. Ikerketa-plano orokor batek irudi estatistikoa eta irudi bizia gurutzatu beharko ditu. Gazteriaren dibertimentuez irudi estatistikoa badirenez, nahiz eta autore bakoitzak bere aldagai-aukeraz desberdinki eramanak izan eta nahiz eta gazteria adin-aukeran zehaztekoan zenbait diferentziaz ibili, dagoena dagoenean profitatuaz bera laburbiltzetik hasiko gara. Eginkizun hori burutuaz gero irudi bizen berri ematera igaroko gara. Horretan, irakurlea laster jabetuko da, irudi-

-emaile guztiek gidoi berari ihardesten diote, guk aurrez prestaturiko gidoiari, alegia. Baina, gidoi horretako galderak irekiak direnez irudi-emaile bakoitzak diferenteki konposa dezakeela agertuko da. Finean, dibertimentu kontzeptua beste antzeko zenbaitekin harremanduko dugu: aisiarekin, denbora librearekin, etabar.

Estatistikazko irudiak

Gazteriaren dibertimentuez estatistikazko irudiak laburbildu aitzinetik dibertimentuen gaiari buruz etnografiak eta historiak egindako ikerketen berri eman behar da Euskal Herria kokaleku duen lan batetan. Izan ere, izaera horretako lanak ugariak eta aberatsak bait dira. Ez da oraingo gure egitekoa guzti horien berri zehatza ematea. Bidenabar, aipatu baizik, eta gainera, lan nabarmenenak. Hasteko, J.I. Iztuetaren "Gizpuzkoako dantza gogoangarriak" eta dantzaren hurbilean etengabe argitaratzen joan den oro gure egunetaraino. Azkenetarik bat, eta lanik aipagarriena, noski, Jean Michel Guilcher-ren "La tradition de danse en Béarn eta Pays Basque francais", dugu. Musikaren arloan beste hainbat esan dezakegu. F. Michel idazlearen, "Le pays Basque, su population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique" gidari dela, lan amaigabeak sortu dira: Ch. Bordes, R.M^a Azkue, Aita Donostia, J.D. Salaberry, edo eta Anita Karrikabururen kantutegiak lekuko. Berdin esan daiteke arte plastikoei doakienean: J. Altunaren, "Lehen

Euskalerrria", historiaurreko arte plastikoaz ari delarik arras jakingarri egiten da. Entretenigarrien arlora igarotzen bagara jokoan lan ugari agertu zaigula jabetuko gara: J.M. Barandiaranek, "Fragmentos vascos. Paletnografía vasca", edo eta "Eusko Folklore: la piedra en el juego", argitaratu dituenean, Julio Caro Barojak, "Baile, familia, trabajo", lan mardula ekoiztu digu. Gaur egun, ez da guzti hori agortu. Behin ere eman den produkzio idatzirik ugariena ematen ari bait da arlo honetan gaur: G. Arregi, "Juegos infantiles en Durango"; A. Erkoreka, "Etnografía de Bermeo. Higiene, distracciones y juegos infantiles"; M. Lekuona, "Fiestas populares en Oyarzun"; edo eta Pili Arin Baztarrikaren "Ataungo jolas tradizionalak". Kirola bere espresio zabalenan harturik ere obra anitzen gai da: R. Bozas-Urrutia, "Euskal Kirolak", R. Agirre Franco, "Juegos y deportes vascos" eta abar. Bereziki aberatsa da pilotari eta futbolari eskaini zaion literatura. Are oraino aisia soziala ikastera zuzenduriko lanak ere sortzen doatza: horien arteko bakar batzuek aipatzekotan, I. Agirrearen, "Ocio activo y tercera edad. Un proyecto comunitario", edo eta, F. Beltranen, "Ocio y tiempo libre. Encuesta sobre la juventud en Navarra"; M. Beperet eta M. Gabiriaren "Las peñas de mozos, un Espacio de la fiesta y la subversión", J.L. Monobonoren, "Espacio y fiesta en el País Vasco"; autore beraren, "El ocio en la sociedad vasca"; eta finean, Javier Elzoren, "Juventud vasca 1986"; aipatuko ditugu lekuko.

Denbora librerako aktibitateak beren garapen nagusietan izendatuaz lehentasunak azpimarratzeko

eskatzen zaienean honela erantzuten dute gazteek:

GAZTERIAK AISIALDIRAKO DITUEN LEHENTASUNAK (%-tan) ⁴

Aktibitateak	Gasteiz 1979	Pasaia 1982	Gipuzkoa 1983
Dantzatzea	11,1	9,5	{ 19,9
Lagunekin ibiltzea	-	18,9	
Batzarrak, taldeak	30,9	-	-
Kirolak, bidaiak	6,8	14,3	18,6
Irakurtzea	{ 22,8	16,7	20,1
Musika entzutea		16,7	{ 17,2
Telebista ikustea	8,6	9,5	
Beste zer bait	19,8	14,4	24,2
Orotara	100,0	100,0	100,0

Halere, denbora libreari dagokionean ez da bakarrik aktibitate bat ala beste gogokoen den jakitea. Aktibitate horiekin

kontsumoa gurutzatzen da. Eta jakingarria gertatzen da zer kontsumo mota eta zein neurritan ematen den gure gazterian.

ZIGARRO-KONTSUMOA EGUNERO ⁵

Zigarroen kopurua	Bizkaia 80	Araba 81	Gipuzkoa 82	E.A.E. 80-82	Donostia 81	Donostia 87	Euskadi 86
Adina	14etik gora	14etik gora	14etik gora	14etik gora	14-20 eskolan	14-20 eskolan	15-20
Ez du erretzen	52,8	56,1	47,2	52,0	51,3	65,8	45,3
1etik 10era	17,1	16,6	{ 42,9	{ 39,0	28,7	21,0	19,6
10etik 20ra	21,5	18,6			16,8	11,0	27,0
20etik gora	7,6	8,7	9,9	8,7	2,7	1,9	7,8
Inkesta-kopurua	800	500	1.100	2.400	2.668	2.543	2.030

Nabarmendu behar da, ordea, kontsumo-neurri hau egunerokoa dela. Aisialdi-aktibitateen garaikoa atzeman nahi izan dugularik ez dugu aurkitu. Aldiz, edariari eta drogari dagokionean bereizketa egin ohi da estatistika-irudietan.

Aisialdiko aktibitateen artean beste kontsumo motarik gurutzatzen da. Horiatarik bat, gure gizartean ongi errotua dagoena aspaldidanik eta hori dela eta ardura berezirik sortzen ez duena, nahiz eta azken urteetan munduan zehar ugaritzen ari diren kanpainen arabera bere ondorio kaltegarriak nabarmentzean ohartun alorreko bilakatzen ari den, alkoholaren kontsumoa da.

Alkoholaren kasuan lan egunetako kontsumotik igande edo festa-egunetakora nabarmen agertzen diren aldeak edo diferentziak daude. Estatistikaz emanda hara zertan gauzatzen den nabardura hori.

Ikus dezagun igande eta festa-egunetan zifra horiek nola aldatzen diren. Bistan da kontsumoa gorantz aldatzen dela. Eta zenbait ikasketetan harremandu direnean, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa elkarrekin zerikusia dutela frogatu izan da. Azken honentzat ere balio du bada estimazio orokorrak.

LAN-EGUNETAN KONTSUMITZEN DEN ALKOHOLAZ ⁶

Ikasketa	Bizkaia 80	Araba 81	Gipuzkoa 82	E.A.E. 80-82	Donostia 81	Donostia 85	Donostia 87	E.A.E. 86
Adina Alkohol-kop.	14etik gora	14etik gora	14etik gora	14etik gora	14-20 eskolan	14-20 eskolan	14-20 eskolan	15-20
Bat ere ez	38,2	33,6	32,9	33,1	57,4	80,8	82,1	66,6
Edale moderatua	47,7	54,3	53,4	52,0	34,4	16,5	16,3	29,2
" porrokatua	10,7	10,7	11,2	10,8	1,47	0,9	1,1	2,8
Alkoholiko posib.	3,6	1,4	2,5	2,5	0,18	0,3	0,5	1,4
Zehaztu gabekoedalea	-	-	-	-	6,5	-	-	-
Inkesta-kopurua	800	500	1.100	2.400	2.781	2.668	2.543	2.030

Oharrak: Edale moderatuak 10°-ko 800 cl baino gutiago kontsumitzen du.
Edale handiak 10°-ko 801etik 1.500era cl kontsumitzen du.
Alkoholiko posibleak 10°-ko 1.500 cl-tik gora kontsumitzen du .

ASTE-BUKAERAKO ALKOHOL-KONTSUMOA ⁷

Ikerketa	Bizkaia 80	Araba 81	Gipuzkoa 82	E.A.E. 80-82	Donostia 81	Donostia 85	Donostia 87	E.A.E. 86
Adina Alkohol-kop.	14etik gora	14etik gora	14etik gora	14-tik gora	14-20 eskolan	14-20 eskolan	14-20 eskolan	15-29
Bat ere ez	32,5	26,0	26,3	28,3	41,1	33,4	36,2	41,1
Edale moderatua	46,6	52,3	49,4	49,4	42,68	42,06	45,5	35,6
" porrokatua	13,9	14,7	15,5	14,7	6,15	12,26	11,4	13,1
Alkoholiko posib.	7,0	7,0	8,8	7,6	2,23	4,61	6,9	9,8
Zehaztu gabeko edalea	-	-	-	-	7,84	-	-	-
Inkesta-kopurua	800	500	1.100	2.400	2.781	2.668	2.543	2.030

Aisialdiko aktibitateekin zerikusi handia duen kontsumoko beste elementu bat ere badugu: droga, alegia. Nahiz eta Euskal Herrian kontsumo mota hau aski berriki sartu den intzidentzia handiko bilakatu zaigu. Estatistikazko irudiek hara zer ematen diguten:

Nahiz eta zenbaki errealei buruz eztabaida egon Euskal Herrian heroína-zale direnak kalkulatzearan batzuk 10.000 direla diote. Beste batzuk 5.000 direla diote. Garrantzizko dena euren kopuru absolutua aski estabilizaturik dagoela azpimarratzea izan daiteke.

Kontsumitzaileak beti berritzen ari dira. Halere, beti antzeko kopurua da.

NOIZBAIT DROGA EZBERDINAK KONTSUMITU DITUZTENEN PORTZENTAIAK ⁸

Ikerketa	EDIS 80 Euskal Herria Nafarroa eta Errioxa	E.A. 8	Sta. Maria E.A.E 84	E.A.E 86	Donostia 81	Donostia 85	Donostia 87
Adina	15etik 24era	15	15-24	15-24	13-20	13-20	13-20
Produktua :							
Kannabisa	15,4	19,1	53	49	36,1	36,2	34,1
Azidoa	2,5	3	4	8,1	4,1	5,2	3,7
Anfetamina	5,7	7,1	9	9,9	7,7	5,4	6,5
Kokaina	5,7	2	4	7,6	1,56	3,0	3,3
Heroína	2,4	1,1	3	2,9	0,87	0,9	0,8
Inkesta- kopurua	157	2.400	400	1.389	2.668	2.781	2.543

HEROINAREN KONTSUMOA EUSKAL HERRIAN ⁹

Ikerketa	E.A.E. 80-82	E.A.E. 86	Sta. Maria 84 E.A.E.	EDIS 80 Euskal Herria Nafarroa eta Errioxa
Adina %-tan	14etik gora	15-29	15-24	15etik gora
Bat ere ez	-	97,3	97	-
Probatu baino ez	-	1,2	-	-
Urtean bitan	1,0	0,7	{3,0	{2,5
Hilean bitan	0,1	0,3		
Astean bitan	0,5	0,5	-	-
Inkesta-kopurua	2.400	2.030	400	197

Gazteak aisialdian ikertzeko kontsideraturiko giroa urbanoa edo erdi-urbanoa dela esan behar da. Izan ere, nekazal tokietan beste aisi enplegu bat eta kontsumo mota tradizionalen nagusitasuna ageri bait dira. Nahiz eta ikerketak eskasak izan, nekazal gizartearen aisialdiko aktibitateez egin izan denak ondoko estatistika-irudi hau ematen digu:

Nafarroako Araitz, Larraun, Basaburua eta Imotz bailaretan ondoko galdera hauek egin zitzaizkien

bertako biztanle gazteei (25etik 49 artekoiei).

"Beste batzu" aipatzen zelarik "dantza egin", "promenatu", "auzoko herrietara joan" adierazten zen. Guzti hori nekazal gizartearen "dibertimentuaren" sinonimo bait da. Aldiz, etxeari loturik dagoen oro ez da dibertimentu bide kontsi-deratzen. Hori dela eta gutxi batzuk bakarrik aipatzen dute telebista ikustea edo etxean lasai egotea dibertimentutzat. Guzti honi loturik norekin dibertitzen diren ere galdetu zitzaien.

ZEIN DIRA ZURE DIBERTIMENTUAK ¹⁰

Ostatuan egon	Ikuskizunak ikusi	Kirolak	Beste batzu	Etxean egon
% 47	% 3	% 17	% 31	% 2

DIBERTIMENTUAK: LAGUN ARTEAN ALA EZKONDUEN ARTEAN? ¹¹

Lagun artean	Ezkonduen artean	Batzuten lagun artean bestetan ezkonduen artean
% 60	% 29	% 11

Agerian dagoenez gero eta gehiago dager nekazal gizartean ere senar-emazteen lotura dibertimentu orduan ere. Gainera, gogora dezagun, lagun artean dibertitzen diren %60 horietariko %14 ezkontzeke daudela.

Domaia da xehetasun gehiago ez miatu izana. Ziur gaude gauza jakingarririk aterako zela: herrietako festei buruz, gaurko dibertimentu berriei buruz, etab. Esan dezagun, finean, azterturiko nekazal gizartea euskalduna dela. Eta euskaldun izateak zenbait fenomeno dibertimentu-gai ala folklore-erakuskizun kontsideratzerakoan badu funtsik.

Bestalde, Bizkaian 1966an W. Douglass-ek¹² egindako ikerketan, Gipuzkoan 1981etik 1983ra T. del Valle-k¹³ edo Araban J.N. Garay-k egindakoetan¹⁴ nekazal gizarteari buruz agerturiko estatistikazko irudiak konfirmatu egiten dira guti gora-behera.

Hara noraino ailegatzten den estatistikazko irudien ahalmena dibertimentuen fenomeno agertzera-koan. Egia da orrazta daitekeela beste datu batzu aldagaitzat erabili dituzten azterketen lekukotasunez, baina gure irakaspenerako baliokotzat ematen dugu agertu duguna: Estatistikazko metodoa perfil abstraktu eta orokorrak

diseinatzerara heltzen delarik ere, ez duela bizitza konkretu eta partikularren zehaztasuna eta aberastasuna agertzeko indarrik, alegia.

Finean, esan dezagun, guk estatistikazko irudien bilduma hau konposatuaz gero lan berri bat argitaratu dela: "Jovenes vascos, 1990", AAVV, Deiker, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritzaren Argitaralpenak, Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia, Kultura Saila, Gasteiz, 1990. Gure bilduman eman dugun estatistika-irudia konfirmatzen du.

Irudi biziak

Elkarrizketaren bidez edo idatziz eman liteken inkesta dugu irudi biziak sortzeko teknika. Aurrez prestaturiko galdera-sail bat jendetza hautatu bati pasatzen zaio. Bistan da parte-hartzaileen presentziak libre eta borondatezkoa izan behar duela. Inkesta-teknikaren erabilpenez lortzen dena hurbiletik loturik dago berri-jasotzailearen abileziarekin. Garrantzi handiko gertatzen da bada berri-jasotzailearen jokabidea. Edozein berriemaile prest legoke baldintza batzuetan edozertaz mintzatzeko. Horretarako inkestatzailea bere berriemailearekiko ezezagun izatea

litzatekeela egokiena frogaturik dago. Anonimatoa anitz estimatzen da. Hala ere goi-klaseetako jendeak zenbait gai ukitzeko erreserbak dituela jakina da. Horretaz galdetu nahi bada biziki zaila izanen da objektibotasunez mintzaraztea.

Bestalde informazioa bera gauzatuari edo aburuari buruzkoa daiteke. Gauzatua denean inkestaren bidea miatzen dena gero konprobatu egin daiteke. Eta normalean gauzatuaz egiten den inkesta distortsio txikiko izan ohi da. Aldiz aburuari buruzko inkesta ziurtasun gutiagora heldu ohi da. Badu garrantzia berri emailea bere portaerez ala eta besteren jokabideez aburu ematen ari den jakiteak ere. Bere bizitzako gertakizunei edo aukerei buruzko aburuak sendoagoak ohi dira besteei doazkien portaera eta aburuez ari direnenak baino. Halere, gehiengan, gauzatuari buruzko informazioak eta aburuak nahasturik jasotzen dira.

Elkarrizketazko inkesta egituratua ala egituragabea izan daiteke. Guk geuk lehenari lehentasuna ematen diogu. Irudiak sortzeko egokiagoa dela bait deritzogu. Lehenik eta behin atzematen duguna irudi biziak sortzea bait da. Bere kontradikzio eta guzti, noski. Lan honetan, behaketa, esperimentazioa, dokumentu-azterketa eta datu ofizialen eskaintza ere gurutzatuta egin daitezke.

Guk dibertimentu gaiak irudi biziak sortzeko galdera-sail bat prestatuak, berri-jasotzaileei aplikatu dezaten pasatu diegu. Aldi berean berri-jasotzaileari bere kondizioaz eta pertsonaz datu

objektibo batzuek eskatu dizkiogu, eta gauza bera egin arazi diogu berriemaileari dagokionean. Dozenaka dira lortu ditugun irudi biziak. Eta dibertimentuez sakonki jakiteko beharrezkoa litzateke horietan zehar agertzen diren profil guztiak plazaratzera. Guk, oraingoz, hemen agertzeko dugun toki-eskasia dela eta, bakar batzuek eta hego Euskal Herriko lau probintziak kontuan harturik agertuko ditugu. Hurrengo batetan beste publikazio-mota batetan espero dugu osotasunera heltzeko okasio hobea izatea.

1.-Lehen irudiaren konposatzailea B.M.C. siglaz definitzen dugu. Gasteizen sortua da 1967ko urriaren 11an. Gaur berean Gasteizen bizi da. Colegio Virgen Niña-n ikasketak egin ondoren Gasteizko Komertzio Eskolara joa zen administraritzako laugarren urteraino helduaz. Orain bertan ere ikasle jarraitzen du. Bere gurasoak Trebinoko Konterrikoak dira. Amak lehen mailako ikasketak egin zituen. Behin ere ez du etxetik at lanik egin. Aitak lehen mailako ikasketak egin ondoren igeltsaritza bizibidetzat erabili du. Beti Gasteizen bizi izan dira.

1.- Gidoia:

Zeintzu lirateke gaurko gazte baten dibertimentu gogozkoenak?

(Dantzaldiak, rock-aldiak, kantaldiak, zinemaldiak, kirolaldiak, turismo-bidaiak, e.a.)

Musikaldiak, bidaiak, turismoa egitea eta batik bat asteburuetan parte zaharrean poteatzea.

Nola ospatzen dira? Deskribatu halako egun bat.

Kontzertua denean, aurrez elkarrekin ordu bat jartzen dugu, horretarako telefonoa erabiltzen dugularik. Gehienetan kontzertu edo berbena horiek ez dira Gasteizen gertatzen, alboko herriska batetan baizik. Horregatik auto baten beharra izaten dugu. Behin baino gehiagotan sei eta zazpi ere joaten gara auto berean. Kontzertua amaitu arte bertan gelditzen gara, eta baldin beste festa zerbaitek jarraitzen badio hura ere gure egiten dugu. Eta ondokorik ez badago Gasteizera itzultzen gara.

Gasteizen sartuaz gero, orduaren arabera, edo Parte Zaharreko ostatuetara joaten gara edo hauek itxiak badaude erdiguneko pubetara hurbiltzen gara. Etxera sartzen garelarik goizeko zazpiak inguru izan ohi da eta gosalduta sartu ohi gara.

Kontzerturik ez dagoenean arrats-gaua parte zaharrean igaro ohi dugu, lehenik Zapateria karrikan, gero Cuestan eta aldamenekoetan, finean berriro Zapateriara itzultzeko guztia itxi arte bertan geldituaz, hots, goizeko ordu biak arte. Ordu horretan etxeratzen gara.

Udan, Aste Santuan edo eta zubiren bat dagoenean egun pare bateko bidaiak egin ohi ditugu kostaldera (Lekeitio, Donostia, e.a.), gertatu izan zaigu ere bidaia luzeren bat egitea, nahiz eta egun gutxiz, Andaluziara adibidez. Taldeko adiskide batzuk bidaia merkeak

profitatuaz, adibidez AEKk Marokora eraturikoa, horrelakorik ere egin izan du.

Nola izaten duzue ospakizunen berri?

Kontzertuentzat Egineko Bat, Bi, Hiru errubrikaren bidez gidatzen gara. Herrietako festez ere Eginen bidez jabetzen gara. Gutariko batek irakurri orduko gainerakoei deitzen diegu berri emanaz. Bestalde Parte Zaharrean egon ohi diren kartelen bidez ere jakiten dugu. Finean taldeko jendeak berak ere albistea ekar dezake gurasoen herria dela eta hauek jakitun izatean etxean jakiten duelako.

Zer edaten da? Zer jaten da? Nola jaten da? Batezbeste zenbat gastatzen da? Nola lortzen da gastatzeko dirua? Norbera bizi den tokitik noraino joan daiteke gazte bat dibertimentu horien bila?

Zer edaten den: Nik neuk normalki zurittoa edaten dut, hots, garagardoa baso txikietan, nahiz non nagoen eta zer ordu den ere mugatzaile izan horretarako. Asteburu normal batetan halere ez da herri bateko festetan bezala edaten; azken hauetan kalimotxoak normalago bait dira edo eta kontzertu batetan garagardoa besterik gabe.

Zer ordu den ere garrantzizko da edateari dagokionean, zeren oso berandu bada eta hiri erdialdeko karriketan bagabiltza, puben eskualdean, zuritorik ez bait da zerbitzaten, eta ondorioz garagardoa beste gabe

edo beste edariren bat eskatu behar da. Horrelakoetan, normala denez, garestia izan ez dadin edari bat bi edo hirurentzat eskatu ohi dugu.

Zer jaten den: Edozein egun delarik, Parte Zaharrean ibiltari ez da jaten, beharbada patatak, artoa edo txutxeria bat salbuespenez. Halere, igande goizetan irteten garelarik ostatueta pintxoak egon ohi dira, eta orduan gasteiztar "Marianito" tradiziozkoarekin bat pintxoren bat edo beste jan ohi dugu, ez gehiago garestiak direlako.

Herrietako festetara abiatzen garelarik edo kontzertuetara aurrez "San Markos"-etik igarotzen gara batzu piper-omeleta eginak erosteko zeren urdaila betetzen bait dute eta merkeak bait dira. Gero goseak jotzen bagaitu festan gauden tokian zertxobait jaten dugu.

Nola jaten den: Normal jaten dela esanen nuke, baina erantzunaren bikoiztasuna kontutan, entseiatuko naiz lerro nagusietan deskribatzen neure eta adiskide baten kasuak kontutan izanik; gainera zertara goazen jakiteak aldakuntzak ekar ditzake.

Mutilezko bat: Praka bakeroak, lau ki lodidun alkondara, larruzko kazadora eta oso dotore ez den amerikana edo txamarraz jantzi ohi da.

Neskazko bat: zailago da neskazkoen deskribapen-tipo bat egitea uniformitate txikiagoa ematen delako nesketan. Nahiz eta baten bat mutilezkoak bezain gaizki edo

okerrago jantzi eta gainera ez makilatu, beste batzu modan joaten entseiatzen dira eta falda laburrak amerikana edo larruzko kazadoraz lagunduak jaten dituzte.

Ni neu sarritan beltzez jaten naiz gona beltzarekin, alegia. Kolore bizidun elastikoak eta noizbehinka prakak ere jaten ditut. Oinetakoak apalak eta erosoak eta gabardina luzeak jaten ditut. Aski makilatzen naiz baina gehiegi nabarmendu gabe.

Batezbeste zenbat gastatzen den: Bakoitzaren baitan dago, norberaren ahalaren neurrian, lan egiten bada diru gehiago eduki ohi da eta halabeharrez ezin dutenei laguntzen zaie. Nik neuk eperen batez lan egindakoan 4.000 edo 5.000 pezeta gau bakar batean gastatzen ditut, halere normal ki neuk pilatuta ditudan edo eta gurasoak eman dizkidaten 2.000 pezeta gastatzen ditut.

Noraino joaten garen: normal ki Arabatik ez gara irteten, baina garrantzi handiko kontzerturen bat gertatzen delarik Donostiaraino heldu izan gara.

Bakarka ala lagunekin egiten da guzti hori?

Lagunekin, noski.

Zenbat laguneko koadrila duzu?

Nora bideratzen garen araberako koadrila dut, toki batzutara batzurekin eta beste batzutara beste batzurekin

irteten bait naiz, guztiok toki guztietara elkarrekin joatea arraz zaila litzateke anitz laguneko koadrila bait gara, hoge bat edo...

Sexu bakarrekoa ala mistoa da?

Mistoa da gure lagunartea.

Nola sortua da koadrila hori?

OHO amaitzen ari ginelarik eskola-ko neska-koadrila izaten hasi ginen, gero bakoitzak bere ingurua ekarri zuen eta handitzen joan ginen, azken hauek beste hainbat egin zuten beren tokietako jendea ekarriaz, eta denok elkartu gara.

Bertso-txapelketek, trikitrixa-txapelketek, estropadek, e.a. aipaturiko dibertimentu horien tokia har al dezakete? Noiz? Nola?

Ospakizun horietarik gutxi ematen da geu bizi garen eskualdean eta ez dugu horretarako afiziorik.

Alderdi politikoek, ikastolek, herri-jaietako komisioek, e.a. urtean noiz-behinka egiten dituzten jai bereziak dibertimentu-gai gerta al daitezke?

Bai, baina prestatzen dutenaren arabera, eta ez prestatzaileen arabera. Nik neuk behintzat ez dut jarraitzen konbokatoria zehatzik, konbokatoria bere baitan kontsideratuaz, bakarrik prestatu dauden ekintzekin ongi pasatu behar dudalako konbentzimentuak dudanean, alegia.

Berri-jasotzailea: Ana M. Pozo
Euskaratzailea: Jokin Apalategi

2.-Bigarren irudiaren konposatzailea A.A.Z. siglapean izendatzen dugu. 69/11/6an Bizkaiko Erandio-Goikoan sortua da. Eskolaurrea Sondikako ikastolan egin ondotik OHoko 4. mailara arte Leioako Azkartza Claret-en egon zen eta OHoko 8. mailara arte Erandio Goikoako Goiko Landa Eskola Publikoan. BBB berriz Derioko Txori-Herri Institutuan egina du. Finean, UBI Derioko Txori-Herri Institutuan burutu du. Ama Bizkaiko Erandio-Goikoan sortua da. Lehen mailako ikasketak Erandio-Goiko auzoan egin ondoren, batxilergoa Tuteran egin zuen. Injinerutzako bi urte egin zituen Deustuko Unibetsitatean eta Ekonomiako beste bi urte Sarrikon. Gaur egun B.G.-ko sukursal batetako zuzendaria da.

2. Gidoia:

Zeintzu lirateke gaurko gazte baten dibertimentu gogozkoenak?
(*Dantzaldiak, rock-aldiak, kantaldiak, zinemaldiak, kirolaldiak, turismo-bidaiak, e.a.*)

Gaur egun mozkortzera eta ondo pasatzera joaten da jendea. Jendea tabernaz taberna dabil eta zenbat eta gehiago edan eta erre orduan eta hobeto.

Horrela ondo pasatzen da.

Jendea asteburuaren zain dago, gero era desenfrenatuan pasatzeko.

Niri, esandakoa, gustatzen zait baina modu moderatuagoan.

Diskoteketara joaten den jendea ere badago, niri giro hori gustatzen ez zaidalarik. Lehen antzerako batera joaten nintzen. Nahiz eta lekua oso gustatu ez, ondo pasatzen nuen nire lagunak hara joaten bait ziren eta giroa han geneukan eginda.

Kontzertuei dagokienez, ondo pasa dezakezu. Baina gehienak Donostian, Bartzelonan eta Madrilen direnez gero, ezin zara astebururo joan, dirua ezezik, joateko garraioa ere behar duzulako.

Gainera taldeen arabera; interesatzen zaidan norbait Bilbora etortzekotan joango nintzateke.

Baina ez joateko kausarik garrantzitsuena, esan behar dut, ez dela diru-arazoa, hau garrantzizkoa izan arren.

Bestalde zinema, antzerkia eta horiek ez zaizkit gustatzen eta ez ditut dibertimendutzat jotzen, ekintza kulturaltzat baino. Gainera ordubete han egon eta 500 pta ordaintzea, gehiegizkoa iruditzen zait.

Eta azkenik bidaiak egiteko dirua behar duzu. Nik, izango banu, egingo nuke; adibidez, eskiatzera joan, edota asteburuak beste probintzietako edo atzerriko zenbait leku ikusteko aprobe txatu, e.a.

Nola ospatzen dira? Deskribatu halako egun bat.

Esan beharra dago larunbata eta igandearen artean desberdintasunik

badela, alde batetik joaten den jende motagatik eta bestaldetik jendeak daraman parrandarako gogoagatik.

Larunbatean askoz jende gehiago egoten da igandeetan baino. Gainera gu joaten garen lekura, Mungia hain zuzen, inguruetakoa jende asko etortzen da, egun horretan "peruko" asko egonik.

Igandeetan ordea, jende gutxiago egoten da, eta normalean asteburu osoa han pasatzen duen jendea da, inguruetakoa jendearen etorrria asko gutxituz.

Gainera azken egun honetan jendea askoz lasaiago dabil, larunbatean baino.

Larunbatean, adibidez, Mungia heldu eta taberna batean sartzen zara "kinitora" jolastera. Kinitoa normalean gorria gaseosarekin izaten da.

Jolas hau erabiltzen dugu, nolabait esateko, motoreak pizteko, hau da "puntilloa" hartuz joateko. Ordu bat edo egoten gara joko honetan edaten, eta gero tabernarik taberna ibiltzen gara edaten. Normalean tabernetatik eta ez pubetatik ibiltzen gara, dirua arrazoi nagusia izanik.

Jendeak leku desberdin askotan edan nahi du, orduan 3 edo 4 leku garestitara joan beharrean, bada 8 edo 10 leku merkegotara joaten gara. Diru berberarekin zenbat eta leku gehiagotara joan hainbat eta hobeto pasatzen dugu, zeren ez bait zaigu gustatzen arratsalde erdia leku berean pasatzea.

Etixeratzeko ordua garraioaren araberakoa da; autobusez itzuli behar baduzu, azkena 10etan denez bada orduan. Bestela kotxea edukiaz gero beranduago, 11etan adibidez.

Nola jakiten duzue ospakizune berri?

Ni beti kontaktu bezala ibiltzen naiz, eta hala egiteko ez duzu horren berririk izan behar.

Badakizu han giroa dagoela eta hara joaten zara.

Zer edaten da? Zer jaten da? Nola jazten da? Batezbeste zenbat gastatzen da? Nola lortzen da gastatzeko dirua? Norbera bizi den tokitik noraino joan daiteke gazte bat dibertimentu horien bila?

Guk normalean gorria gaseosarekin, kalimotxo edota beltza limoizko kasarekin. Halere garagardo asko edaten da.

Nire adineko eta inguruko jendearen artean ez dut ikusten jendeak edari gogorak (ginkasa, whiskya) edaten dituenik.

Jazkerari dagokionez, hau, jende motaren araberakoa izaten da.

Jende normalak, alkondara, prakak, txamarra, orain modan dauden erronbodun galtzerdinak, eta zapata gogorak jaten ditu.

Perukoek, hauxe bera baina markaduna erabiltzen dute.

Nesken artean jazteko orduan, konpetentzia handiagoa ikusten dut mutilengan baino.

Nesken artean 3 talde desberdin bereziko nituzke jazteko moduagatik:

*Lehenengo taldearen jazkera mota eta itxura fisikoa:

- Oso praka ajustatu edo lotuak, beltzak batez ere.
- Aurpegi oso margoztua.
- Ilea lakaz beterik eta oso nahasia.

*Bigarren taldearen ezaugarriak edo neska normalenak:

- Alkondara, gona edo prakak, soineko, jaka edo txamarra.
- Aurpegia ez-pintatua edo gutxi pintatua.

*Hirugarren taldearen ezaugarriak, neska "perukoenak":

- Aurreko taldeak erabiltzen dituen arropak, baina markadunak, eta orijinalagoak, arropen banguardian eta modan oso sartuan egonik.
- Aurpegia margozturik oso ondo baina ez gehiegi.
- Osagarri asko (belarritakoak, eraztunak, lepokoak, zapiak, e.a.)

Gastatzen den diruaz, esan, larunbatean 1.000 pta.rekin ondo zabiltzala. Igandean pixka bat gutxiagorekin moldatzen zara, zeren ez bait zoaz larunbateko erritmo berdinean, lasaitasun handiagoaz ibiltzen bait zara.

Dirua, gurasoek ematen dizute eta zerbait aurrezten baduzu bada hori ere erabiltzen duzu.

Dibertimentuen bila noraino joan ere, izandako garraioaren menpe dago. Kotxea izanez gero gehiago mugitzen zara. Dena dela nik kotxea izango banu, gauza bera egingo nuke baina ordutegi malguago batekin.

Ezagutzen ez ditudan poteo-lekuek ez naute erakartzen, zeren haietan ez bait dut inor ezagutzen. Horrela bada, nahiz eta kotxea izan leku horietara ez ginateteke joango.

Bakarka ala lagunekin batera egiten da guzti hau?

Hori ez dago galdetzerik, ez bait da ulertzen bakarkako poteoa. Ezinbestekoa duzu lagunekin joatea ondo pasatzeko.

Zenbat laguneko koadrila duzu?

Taldearen partaideen kopurua aldakorra izaten da, halere nahikoak egoten gara, zazpiren bat edo.

Sexu bakarrekoa ala mistoa da?

Mistoa da gure taldea.

Nola sortua da koadrila hori?

Gu ez gara guztiok herri berekoak. Baina nire lagun batek, Erandio-Goikoa denak, Bilboko lagun batzu zituen. Eta hauek,aldi berean Unbeko lagunak zituzten. Eta guztiak elkartuz eta elkartuz, azkenean gaurko gure taldea osatu dugu.

Bertso-txapelketek, trikitrixa-txapelketek, estropadek e.a. dibertimentu horien tokia har al dezakete? Noiz? Non?

Inola ere ez. Hauek jaietara murriztuak daude. Jaiak daudenean programa betetzeko egindako ekintzak dira.

Jaiak eta daudenean enteratzen zara, halere ez naiz joaten niretzat interesik ez daukatelako.

Eta uste dut nik bezala, beste askok ere egiten dutela.

Alderdi politikoek, ikastolek, herri-jaietako komisioek e.a. urtean noizbehinka egiten dituzten jai bereziak dibertimentu-gai gerta al daitezke?

Partidu politikoek ekintzak, nahiz eta informazioa egon, ez zaizkit interesatzen.

Ikastolen ekintzez ez naiz enteratzen. Horretarako mundu horretan sarturik egon behar duzu.

Jaietako komisioetan ez dut parterik hartzen, jende asko egoten da hor sarturik. Gainera segun zer jende dagoen komisioan, zuk horretan parte hartzeko gogoia izango duzu ala ez.

Zerbait gehitu nahi?

Nik esandakoa 17-20 urtetako jendearen artean ematen da gehienbat. Ez dut uste jende nagusiagoa (21-25) mozkortzera doanik. Jende hau era lasaiagoan joaten da, batez ere gauean ateratzen delarik.

Berri-jasotzailea: Yolanda Zarraga Madariaga.

3.-Hirugarren irudiaren berri-emailea M.B. siglaz aipatzen dugu. 68/6/29an Seguran sortua da. B.B.B. eta U.B.I. Beasainen ikasi zituen. Une honetan Euskal Filologia egiten ari da Gasteizen. Aita eta ama sortzez eta bizitzez Segurako eremuan kokaturik daude.

3. Gidoia:

Gidoi honetako lehen puntuak dionari erantzuteko, galderaren barnean bertan andana edo zerrenda moduko bat ematen denez, zerrenda hori datorren eran hitzez hitz aztertzen joango naiz, ez bait nuke jakingo zehazki sailkapen konkretu bat egiten nire gustuen arabera.

Dantzaldiak: oso-oso gogoko dut dantza egitea. Baina dantzalekuek ez naute gehiegi betetzen, ikusten bait dut bertako giroa oso "artifiziala" dela: dena helburu finkatu bat lortzeko prestatua bait dago. Nahi gabe ere, kontsumora bultzatua sentitzen naiz eta ezinezkoa gertatzen zait inorekin solasaldi normal bat aurrera eramatea, sakon samarra bada behintzat. Leku hauetan betiko tontakeriak besterik ez ditugu esaten. Dena den, noizbehinka joatea gustatzen zait, gehienbat dantza piska bat egin eta betiko giroa aldatzeko. Hau horrela bada ere, esango dut hamasei edo hamazazpi urte nituelarik astebururo dantzaleku hauetako batetara joaten nintzela, orain jasangaitza iruditzen bazait ere.

Hala ere, dantza egiteko eta ondo pasatzeko, herri txikietako festak eta berbenak ditudala gogokoen nabaritzen

dut. Bertako plaza edo polikiroldegietan antolatzen diren jaialdiak oso gustokoak ditut, erabat "sanoak" iruditzen bait zaizkit, eta pena izugarria hartzen dut, giro herrikoi hori denbora gutxiren buruan bertan behera datorrela ikustean.

Gizarte kontsumitzaile honek dena erasotu digu, eta hemen ere horixe hasi da gertatzen.

Kantaldiak: Hauek ere atsegin ditut eta ez gutxi gainera, gaurko kulturaren zati oso garrantzitsutzat jotzen bait ditut. Hala izanik ere, zenbait arrazoi direla medio ez naiz askotara joan:

-Herri txiki batetan jaioa naiz eta bertan bizi ere. Honek esan nahi du, inguru hauetan modu honetako jaialdiak oso gutxi antolatzen direla eta berrogeitamar kilometro edo gehiago egin behar ditudala askotan. Hauek gehienbat Donostian egiten bait dira ete nire herritik nahiko urruti dago.

-Bestalde, arazo ekonomikoa ere hor dago. Ikasle izanik, nire poltsikoan dirua ez da sobran izaten, eta nola eta zertan gastatzen dudanez neurtu behar izaten dut. Hau horrela delarik, ezin kantaldi gehiegitara joan, normalean nahiko sarrera garestiak izaten bait dituzte. Dena den, ahal dudanez neurrian joatea gustatzen zait.

Zinema: Zinema ere asko gustatzen zait, eta neure burua ez badut oso lanpeturik ikusten, astean behin joaten saiatzen naiz. Bestela, hilean pare bat filma edo ikusiko ditut.

Telebista berriz, nahiko gutxi ikusten dut, ia ezertxo ere ez. Pelikularen bat ikusten badut astean behin, albistegi bat ia egunero eta bestelako saioen bat noizbehinka.

Irratia, bestalde, askotan pizten dut, musika eta albisteak entzuteko gehienbat. Noizbehinka sariketaren batean ere parte hartzen dut.

Kirola: kirola behar baino gutxiago egiten dut. Halere, izaten dut urtero denboralditxo bat, udaberrian hasita normalki, non egunero korrika piska bat egitera joaten naizen.

Oinez ibiltzea ere gustatzen zait, eta txirrinduz ere paseotxoren bat edo beste egiten dut. Noizbehinka mendira joatea atsegin dut, zerbait mugituaz eguna pasatzeko. Udan berriz, igeri piska bat egiten dut.

Turismo-bidaiak: Idealak iruditzen zaizkit, eta pertsona baten heziketarako behar-beharrezkoak, jende eta leku berriak, bizimodu eta kultura ezberdinak ezagutzeko, beste erlazio mota batzuk edukitzeko. Ni, egia esateko, oso gutxi ateratzen naiz, nahi nukeen baino gutxiago. Hemen berriro ere arazo ekonomikoa nagusitzen bait da.

Ospakizun edo eginkizun hauen berri, komunikabideen eskutik izaten dugu zenbait kasutan: nola irratiz hala egunkarien bidez gehienbat. Beste modu bat, eta ez garrantzi eskasagoa duena, lagunarteko komentarioak dira.

Edaten denari buruz galdetzen zaigu ondoren. Nik esan behar dut alkoholgabeko edariak edaten ditudala normalki, nahiz eta tartean "zurito" edo "kalimotxoren" bat erortzen den, baina oso oso tarteka. Bestalde, mostoak eta zumoak dira gehienbat hartzen ditudanak, tonikaren bat ere bai. Noiz behinka, bestalde, atera izan naiz kafetxoren bat edo hartzera, baina hori aitzaki bat besterik ez da izaten lagunekin nonbait bildu eta kontu batzuk esateko ordu pare batez.

Lagunekin "poteatzera" asteburu-etan soilik ateratzen naiz, eta oso gutxitan ostegunetan.

Jan, berriz, pintxoren bat jaten dugu. Bestela, pipa, patata frijitu edo pistatxo batzu, eta horrelako txutxeriaren bat edo beste. Dena den, arratsaldean goiz ateraz gero eta berandurarte etxeratu ezean, bokataren bat jateko ohitura ere badut. Noizbehinka, tarteka afaritxoren bat ere izaten dugu arrazoi ezberdinak aitzaki izaten direlarik. Afari batzu tabernan egiten ditugu eta beste batzu guk geuk prestaturik lagun baten etxean edo bestela ikaslagunekin Gasteizen dudan pisuan. Azkeneko hauek oso ximpleak eta merkeak izaten dira eta lagunekin biltzea eta ondo pasatea izaten dute helburutzat, gero juerga piska bat egiteko.

Larunbat normal batean, gaez atera eta egin ohi duguna tabernaz taberna ibiltzea da, nahiz eta gutxi edaten dugun giro hori atsegin dugu. Tartean, lehen esan dudan legez, pipa eta antzeko txutxeriak jaten ditugularik

zazpiehun bat pezetako gastua egiten dut. Igandeetan oso gutxitan irteten naiz hurrengo egunean oso goiz jeiki behar bait dut, kurtsuan zehar. Ateratzen banaiz, bueltatxoren bat lagunekin eman eta hamarrak edo hamaikak inguruan etxera bueltatzen naiz. Opor garaia denean, iganderen batetan edo bestetan dantzalekura joaten naiz, eta orduan presupuestoa igo egiten da, sarrera ordaindu behar bait da eta hau hirurehun pezeta ingurukoa izaten da.

Jazten berriz, ez dut diru askorik gastatzen. Erropa gutxi egiten dut eta egiten dudana beste senideekin asko txandatzen dut (erropaz aldatzea dexente gustatzen bait zait).

Gastu hauetaz aparte, neure ikasketak eramaten ditu dirurik gehiena: ikasmateriala erosi behar dut, etxetik kanpo igarotzen dut astea, e.a.

Gastatzeko diru hori neuk irabazten dut euskarazko klase partikular batzu emanez. Normalki hilaren bukaeraino iristen naiz, baina arrazoiren bategatik dirua falta baldin badut gurasoei eskatu behar izaten diet. Halere, saiatzen naiz nire presupuestoa jakin horretatik ez pasatzen.

Dibertimentu horien bila ez ditut nik bide luzeak egiten. Asteburu normal batetan, hamar kilometrotik hogeitabost bitartera egiten ditut.

Hau dena, legunekin batera egiten dut. Halere, gogoko dut, zenbaitetan bidai eta txangoak familiakoekin batera egitea.

Bi koadrila ditudala esan liteke. Bata, nire jaioterrikoa, hau da, txiki txikitatik nabilena eta eskolan sortu zena. Hasieran handiagoa bazen ere, orain bost lagunez osatua dago, tarteka-marteka besteren batzu gehitzen bazaizkigu ere. Bostok neskak gara eta eskolan ezagutu-takoak, betidanik elkarrekin ibili izan gara nola klasean hala kalean.

Bigarren koadrila, Gasteizen dudana da. Neure ikasketak burutzen ari naizen tokian. Hamar bat lagunez osatua dago eta mistoa da. Denok ikasleak gara, han bertan ikasten ari garen jendea. Koadrila hau ere ikasketa-munduaren inguruan sortua dela esan liteke bada.

Bertso-txapelketek, trikitrixa-txapelketak, etabarrek, noski har dezaketela lehen aipatutako dibertimentuen tokia. Are gehiago, noizbehinka hartzen dute toki hori. Niri neuri, giro herrikoi hori asko gustatzen zait eta beharrezkoa ikusten dut bestelako ospakizunekin txandakatzeko. Lehen esan dudan bezala izugarritzko pena ematen dit hau dena galtzen ari dela ikusteak. Halere, batzutan sentitzen dut berpizten ari ote den, gure euskal kulturaren ardatzat bait dira euskal hizkuntzarekin batera.

Agian, kontzientziazte lan baten eraginez pentsatzen dut horrela, ez dakit, baina nirekiko beste dibertimentuen pareko dira, eta besteak bezain onak eta alaiak iruditzen zaizkit.

Alderdi politikoek, ikastolek eta abarrek antolatzen dituzten jai bereziak

dibertimentu gertatzen dira. Ospakizun publikoak diren neurrian eta jendetza biltzen duten neurrian, niretzat dibertigai gertatzen dira eta aldi berean betiko giroa hausteko aitzaki. Hau dena, nire ideologia eta pentsamol-deekin bat baldin badatoz behintzat.

Nik neuk nabaritzen dut, eguneroko bizimodua eteteko, asteburuak behar-beharrezkoak direla. Dibertimentu mota ez zait gehiegi axola, gustoko jende eta lagunekin alternatzen badut. Orain arte aipatutako dibertimentu guztiak ditut atsegin, denak zaku berean sartuko nituzke, sailkapen zehatzik egin gabe. Hori bai, piska bat giroa aldatzea gustatzen zait, beti gauza berdinak egin gabe, jende berria ezagutzea. Halere, askotan lotsatia eta itxia naizela nabaritzen dut. Batzutan, halere, oso nekatuta sentitzen banaiz edo adore gutxi-ekin, bakarrik egotea gustoko dut. Zerbait irakurriaz, idatziaz, musika entzunaz edo bestelako eskulanean bat eginetz.

Bidaiatzea asko gustatuko litzaidake, baina diru-arazoak ez dit uzten nahi adina bidaiatzen. Uste dut, hemen aipatu ditugun ospakizunetan edo eginkizunetan aberasgarrietakoa pertsona batentzat horixe dela: bidaiatzea, berorrek dakartzan ondorioekin. Laguntza gehiago egon beharko lukeelakoan nago eta baita informazio gehiago ere.

Ikusten dudada da, gaurko gazteria gizarte kontsumitzaile honen barnean burubelarri sartua dagoela eta askok behar duten dirutza lortzeko arazoak

dituztela. Hau horrela izanik gurasoek sakrifikatu behar dute zenbait kasutan. Beste dibertimentu-mota batzu aurkitu behar dira eta gazteriari beste motibazio batzu eman behar zaizkio nolabait. Hori, denon artean egin beharreko lana izango litzateke.

Berri-jasotzailea: Izaskun Insausti.

4.-Laugarren irudiaren sortzailea A.C.A. siglaz mugatzen dugu. 67/5/4-an Iruñean sortua da nahiz eta geroztik beti Etxarri-Aranazen bizi. O.H.O.ko ikasketak "San Donato" Kolegio Publikoan egin zituen. B.B.B. eta U.B.I. Altsasuko "San Miguel de Aralar" Batxilergo-Institutu Nazionalean. Elkarrizketa hau burutu denean Donostiako Ibaetan Irakasle-Ikasketen hirugarren urtean dago. Udetan diru zertxobait irabazteko lan egiten du. Ama, Etxarri-Aranazekoa, herri eskolan lehen mailako ikasketak egin ondotik herriko pertxa-fabrikari langile izan da. Aita Etxarri-Aranazekoa, herri-eskolan lehen mailako ikasketan egin ondotik txofer ibili da.

4. Gidoia:

Zeintzu lirateke gaurko gazte baten dibertimentu gogozkoenak?
(Dantzaldiak, rock-aldiak, kantaldiak, zinemaldiak, kirolaldiak, turismo-bidaiak, e.a.)

Poteoa, kontzertuetara eta zinemara joatea.

Nola ospatzen dira? Deskribatu halako egun bat?

Beno, poteoa lagun-talde bat elkartu eta ostatueta itzulika ibiltzean datza, geure gauzez hitzeginez, ardoa eta garagardoa edaten ditugularik. Gustokoen zaizkigun osatueta joaten gara, gure elkarriketa gai-zerrenda zabalera hedatzen delarik. Koadrila-koekin hitzegiteaz gain, gurutzatzen ditugun beste batzurekin eta ostatueta zerbitzariekin aritzen gara. Aldizka zigarroren bat ere erretzen da, eta gauden ostatueta kontsumoa guztiok amaitzen dugunean, beste batetarako bidean jartzen gara. Itzuli horietan kontsumitzen duguna ordaintzeko poltsa bakarrean gure diru parte ipintzen dugu. Niri poteatzea anitz gustatzen zait, ongi pasatzeaz gain lagunekin gauza ezberdinez hitzegiten bait da, eta hori kultura egitea da, ezta? Herriko gauzak, jendearen bizitza, ohiturak aipatzen dira... nola esan... oso ongi deritzot.

Kontzertuei buruz. Kontzertu errebindikatzailleak maite ditut, askapen berezi bat xedea dutenak, euskara, Nikaragua, presoak, alegia, Kortatu, Hertzainak, Tijuana, e.a. talderekin ospatzen direnak. Adibidez, duela zenbait denbora Iruñeako Anaitan ospatu zen kontzertua. Kortatuk eta Tijuana egin zuten. Taldeak pabiloiko pistan taulatu batean zeuden eta jendea ere pista berean aurrez aurre. Hainbat jende ari zen kantatzen eta dantzatzen non sartzea ere oso zaila gertatzen bait zen. Armailetan, eserita, molde lasaiagoan ere jende anitz bazen, eta oraino beste multzo bat barraren inguruan, zein orokorki goi-partean ezartzen bait da. Musikoak, argiz, fokoz eta gauza

horiez hurbildurik egon ohi dira, gainerakoa ilunpean, argirik gabe gelditzen delarik. Oso atsegina da. Dantzatu, kantatu eta poteak hartzen dira, eta kontzertua burutzean kanpoan jarraitzen da martxarekin. A, haize zabalean ere egiten dira kontzertuak. Hori bai dela bizio bat.

Zinemari doakionean, ez dakit zer esan. Xingleki zera, pelikula on bat ematen dutela jakin orduko lagun-talde bat elkaturik hara goazela. Orokorki gaueko emankizunetara joan ohi naiz. Garai hauetan oso jende gutxi ikusten da zineman, baina niri gustatzen zait joatea. Anitzek palomitak, garagardoa edo antzeko zerbait hartu ohi du pelikula orduan. Beste batzuk xingleki pantailara so egiten dute. Beno. Amaieran, irtetzean, gure aburuak trukatzeko ditugu ikusiriko pelikulaz. Zinemaren ondotik berandu bada etxera ninteke edo itzulitxo bat eman dezaket hor zehar. Ez dakit zer gehiago esan zinemaz. Interesdun pelikula bat lagunekin ikustera joatea da, ezta? Etxean telebista ikustearen antzekoa, baina jende gehiagoz hurbilduta eta toki handiago batetan.

Nola jakiten duzue ospakizunen berri?

Poteoari dagokionean ez naiz molde bereziz informatzen. Karrikaritzen zara, lagunekin elkartzen, eta badago. Kontzertuetarako egunkarietan, karrikako karteletan informatzen naiz...Eta zinemaz karteleraren bidez.

Zer edaten da? Zer jaten da? Nola jazten da? Batezbeste zenbat gastatzen da? Nola lortzen da gastatzeko dirua? Norbera bizi den tokitik noraino joan daiteke gazte bat dibertimentu horien bila?

Gehienik garagardoa, eta asteburuetan apalondoan patxaranen bat.

Poteatzen nabilenean litekeena da ogiarteko bat edo pintxo bat jatea. Kontzertuetan eta zineman ezer ez.

Ahalik eta erosoan: txandalak, estuegi ez diren prakak, elastiko handiak, botak eta abarketak. Gauza erosoak.

Gau batez poteatzen mila pezeta inguru. Kontzertu batetara noalarik milatik mila eta bostehunera, sarrera eta hartzen denarekin. Eta zinemara joaten banaiz bostehun, sarrera kostatzen dena, alegia. Dirua gurasoek ematen didate. Udarlan egitean ere diru pixkat irabazten dut.

Poteatzen egin izan dudana ibilaldirik handiena Etxarritik Donostiarakoa (70 km) izan da; Iruñerainokoa ere bai (40 km.) Kontzertuentzat Bilboraino joan izan naiz urrunen; eta pelikula batengatik Iruñearaino.

Bakarka ala lagunekin egiten da guzti hori?

Koadrilan egiten dugu guzti hori.

Zenbat laguneko koadrila duzu?

Beti ez gara denok ibiltzen. Batzutan bost, sei edo gehiago. Gehien biltzen garenean hamabost gara.

Sexu bakarrekoa ala mistoa da?

Talde mistoa da.

Nola sortua da koadrila hori?

Poteoaren bidez osatu zen koadrila. Edozein egunetan irten eta ezagunen batekin aurkitzen zara. Egun horretan ongi pasatzen duzularik beste aldi batetarako hitzarmentzen zara. Gero, ohitura bilakatzen da.

Bertso-txapelketek, trikitrixa-txapelketek, estropadak, e.a. aipaturiko dibertimentu horien tokia har al dezakete? Nola?

Bai, zergatik ez? Gauza garrantzizkoak eta dibertituak deritzet. Herrietako festei, bazkari herritarrei, e.a. giro handia ematen dieten aktibitateak dira. Giroa ezberdina da, adibidez poteoarekin konbaratzen bada, baina interesgarri jarraitzen du izaten. Gainera ospakizun horiek Euskal Herriko kulturaren parte dira.

Alderdi politikoek, ikastolek, herri-jaietako komisioek, e.a. urtean noizbehinka egiten dituzten jai bereziak dibertimentu-gai gerta al daitezke?

Bai.

Zergatik?

Errebindikatibo direlako eta ongi igarotzen dudalako. Eskabideak

formulatzea den orori egoki deritzot, hots, euskara, presoen askatasuna. Eskabide horiek festarekin nahasteari ongi deritzot. Gainera giro jatorra sortzen da. Festa horietara joatea oso maite dut, bai.

Berri-jasotzailea: Ana Esther Sanchez Arbizu.

Euskaratzailea: Jokin Apalategi.

Ondorioak

Hastapenean adierazi dugunez argi dago estatistikazko irudiak argituak gertatzen direla irudi biziaren metodoarekin. Beste ikuspegi zehatzago bat lortzen da. Halere, domaia da, areago haragitzeko espaziorik ez ukatea aldizkariaren neurriengatik. Euskal Herriaren iparraldeko irudi biziak ere sortu ditut. Baina horretarako estatistikazko irudiak ere beharko genituzke, eta gaurkoz eskas ditugu. Beste aldi batean helduko garela horretaraino espero dugu.

Guk geure aldetik ehunka irudi bizi ditugu artxibatuta. Guzti horiek jokoan jartzean perfil-andana bat eta zehatzak lortzen dira. Beste gabe, ordea, agertu dugunetik ondorio daitekeena da oraindik euskararen kultura bizirik dagoen herrietan sortu eta bizi denak, dibertimendu-gaitzak ematen dituela hainbat herri-joko; aldiz erdararen munduan sortu eta bizi denarentzat, eta areagoturik hirietan bizi bada, herri-joko horiek folklore-erakustaldi besterik ez dira, eta ondorioz dibertimendu-gaitasun ga-

beak. Honela bada, dibertimenduaren eta hizkuntz kulturaren harremanak frogaturiko legezkat eman daiteke.

Bigarren oharra edariaren ekaiari loturik doa. Gure herriko kulturaren lehentasuna ukan duen ardoak badirudi gaurko gazteetan ez duela arrakastarik. Gaurko gazteen oinarritzko edarizat garagardoa agertzen da. Ardotik garagardorako aldaketa gauzatu berria dugu. Baina garagardoaren kultura inportaziozko delarik, kanpoko denaren sartze berri zabalago baten adierazle ez ote dugu? Ez goaz besterik gabe uxatzera, baina, gure herriko ardoak garagardoak baino edari-kalitate hobek baditu, zergatik garagardoa inposatzen zaigu? Zeren, garagardoa naturalki, hots, naturaren propietateen kontrolean egina den herrietan edari egokia bada ere, hemen gure artean saltzen dutena usinetan kimikaz trafikaturiko garagardoa besterik ez bait da. Garagardoaren sarrera gure orainartekoaren deserrotze-prozesua neurtzeko giltza izan daiteke, rockaren, bakeroaren, drogaren sarrerak izan daitekeen bezala. Mundu mailako uniformizaziora bideratzen ote gara? Badago hemen gogoeta anitzetarako gairik!

Edatearekin harremanurik zigarroa ere aipatu zaigu irudi bizi horietan. Edariak erretzea errazten du, edo erretzeak edaria eskatzen du. Halere, plazaratu ditugun irudi bizietan ez zaigu droga berrien presentzia aipatzea suertatu. Baina, guk geure eskuartearen ditugun beste irudi bizi batzutan bada horrelakorik. Halere,

estatistikazko irudietan ageri denez, argi eta garbi dago droga berrien kultura baino sakonagoa dela edatearena eta erretzearena gaurko gure gazterian ere.

Hirugarren oharra gaurko gazteek "poteoa" deitzen dutenari doakio. Koadrilaren ingurune naturala bailtzen agertzen zaigu "poteoa". "Poteoa" ezin bait da lagunartean edariak kontsumitze hutsera mugatu. Erritual psikologiko aberats bat litzateke. Aldi berean, komunikazioz egiten den distentsio sozial baten produkzitzaile, eta masa-kulturarako eskola eroso bat. Gogora ditzagun "poteoaz" esan zaizkigunak. Irudi bizi baten bidez adierazi zaigunez, gainera, poteoak espazio hautsiak bateratzea lor dezake: ekintza berean Etxarritik Donostiaraino eta Etxarritik Iruñeraino joan bait daiteke lagunartea.

Laugarren oharra sexu arteko harreman sozialei emango diegu. Etxea sendi hedatu baten laneko unitate zenean, gizarte-harremanak beti eta alor guztietan mistoak ziren. Laneko unitate urbanoak eta erdi-urbanoak eraikitzen joan zirelarik, gizonezkoa, bere laneko erreferentziak beste edozerk baino gehiago izaeratuko duenean, emakumezkoa, etxe nuklearrera mugaturik, bertako zerbitzuen arduradun izateak definituko du. Ondorioz, nola bataren hala bestearen gizarte-harremanak bereizten hasiko dira. Hirietan txoko maskulinoak sortuko dira. Dibertimentu-koadrilak sexuka egingo dira. Azken urteetan emaztekiek laneko unitate urbanoak eta erdi-urbanoak okupatzearekin,

ordea, txokoak eta koadrilak misto bilakatzen hasiko dira. Laneko unitateen aldaketari jarraitu zion hezkuntza berezituaren ondorioak halere ez dira erabat ezabatu gaur oraino, eta bereziki herrisketan dihardute irudi biziaren emaile batek gogoratu duenean bere herriskan koadrila sexu bakarrekoa duela nahiz eta hirian mistoa eduki.

Oharrak

- (1) Cf. J. I. Homobono, *Aisiaren alderdi sozialak, El ocio en la sociedad vasca*, Lankide Aurrezkia-Jakin, Donostia, 1985, 229 or.
- (2) Cf. *Sondeo a la juventud de Vitoria*. Facultad Teológica de Vitoria. Gasteiz, 1979, 17 or.
- (3) Cf. F. Beltran, *Ocio y tiempo libre: Encuesta sobre la juventud en Navarra. Informe provisional*, Fundacion Bartolomé de Carranza, Iruñea, 1983, T.II, 217-301 or.
Cf. *La juventud guipuzcoana*, Diputacion Foral de Guipúzcoa (Salud y Bienestar Social). Bilbo, 1983
C.f. Siadeco, *La juventud de Eibar. Estudio sociológico*. Ayuntamiento de Eibar. Donostia, 1984
- (4) Cf. *Sondeo ala juventud de Vitoria*, op.cit. 17 or.
Cf. Felipe Barandiaran Irizar, *La comunidad de pescadores de bajura de Pasajes de San Juan*, Arg. Autorea, Donostia, 1982, 429 or.
Cf. *La juventud guipuzcoana*, op. cit. 74 or.
- (5) Cf. Javier Elzo, "La investigación epidemiológica y sociológica de la drogodependencia en Euskadi (1978-1986)", in *Libro blanco de las drogodependencias en Euskadi*, 1987, Arg. Servicio Central de Publicaciones, Gobierno Vasco, Gasteiz, 1988, 78 or.
- (6) Cf. *Ibid.*, 79 or.
- (7) Cf. *Ibid.*, 80 or.
- (8) Cf. *Ibid.*, 82 or.
- (9) Cf. *Ibid.*, 83 or.
- (10) Cf. Miguel Olza Zubiri, *Psicosociología de una poblacion rural vasca*, Arg. Institucion Principe de Viana, Iruñea, 1979, 140 or.
- (11) Cf. *Ibid.*, 141 or.
- (12) Cf. W. Douglass, *Muerte en Murelaga: el contexto de la muerte en el Pais Vasco*, Arg. Barral, 1973
- (13) Cf. T. del Valle, eta taldea, *Mujer Vasca, imagen y realidad*, Arg. Anthropos, Bartzelona, 1985, 69-83 or.
- (14) Cf. J.M. Garay, *Laguardia y la Rioja Alavesa*, Arg. Eset, Gasteiz, 1964.